



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

UHOIDEAK HERNANIALDEAN. Herenegun gainezka egin zuen Urumeak Hernani aldean, eta arazo ugari eragin zituen Astigarraga arteko bidean, eta inguruko industriguneetan. Auto asko uretan harrapatuta geratu ziren, eta baratze eta industri pabiloietan urak kalteak sortu zituen.

Euri erauntsiek arazoak sortu dituzte berriz, baina arintzera joko du gaurtik

Arga, Urumea, Bidasoa, Zadorra eta beste hainbat erreka eta ibaiak gainezka egin zuten atzo Euskal Herrian, eta begi guztiak Erriberan jarrita zeuden arratsaldean, Ebro ibaian

ISTRIPUAK

Bi euskal herritar hil dira Soria eta Errioxan

Bi euskal herritar hil ziren atzo Euskal Herritik kanpoko errepideetan izandako auto ezbeharretan. Gazteizko bizilagun bat, herenegun arratsaldean izandako istripu batean hil zen San Esteban de Gormaz herrian (Soria). Guardia Zibilak emandako informazioaren arabera, istripuan J.C.V.A. 40 urteko gasteiztarra hil egin zen, gidatzen zuen furgonetak kamioi baten aurka jo ondoren izan zituen kolpeen ondorioz.

Bestalde, atzo goizean 27 urteko emakume bizkaitar bat hil zen Ausejo herrian (Errioxa) izandako auto istripuan, Guardia Zibilak informatu zuenez. Istripua N-232 errepidean gertatu zen bi autok parez pare jo ostean. M.A.S.M. 27 urteko gazte bilbotarra autoaren barruan harrapatuta geratu zen, eta suhiltzaileak askatzen saiatu ziren arren, ezin izan zuten deus egin haren bizia salbatzeko, atera zutenerako hilik baitzen.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

EBRO MEHATXAGARRI. Ebro ibaiak gainezka egitear zegoen atzo arratsaldean Erriberako bazterretan. Arratsaldean alerta egoera ezartzekotan egon ziren, ibaiak ikusten den bezala baitzihoan, Castejonon.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

BARATZEAK PUTZU BATEAN. Toki askotan (Astigarragan bezala), urak baratzeak ito zituen.



ALBERTO BARANDIARAN

URA KENTZEKO LANAK. Hainbat etxetan lana egin behar izan zuten, Iruñean bezala, ura kentzeko.

I. Petxarroman | **DONOSTIA**

Euri erauntsiek arazoak sortu zituzten atzo berriz, hirugarren egunez jarraian. Alabaina, gaurtik aurrera arintzera joko omen du, eguraldi iragarpenek diotenez. Atzo, Euskal Herriko errepide ugari itxita egon ziren une batean edo bestean urak hartu zituelako, edota bestela luiziren bat gertatu zelako. Gipuzkoan, egun osoan itxita egon zen, esaterako, Hernani eta Astigarraga bitarteko errepidea, Urumea ibaiak eragindako uholdeengatik. Gauza bera gertatu zen Hernani eta Goizueta lotzen dituen GI-3410 errepidean. Astigarraga eta Hernani arteko errepidean bi gidari erreskatatu behar izan zituzten herenegun gauean suhiltzaileek, ur putzutik ezin ateraz geratu baitziren.

Errezilen ere errepidea moztu behar izan zuten, luizi baten ondorioz, eta gauza bera gertatu zen Zarautz eta Getaria lotzen dituen kostaldeko errepidean.

Bizkaian, BI-2704 errepidea moztu behar izan zuten goizean Erandio aldean, Asuako biribilgunea eta Enekuriko mendatearen artean ur putzu oso handiak zeudelako. A-8 autobidean ere arazo ugari izan ziren egun osoan, eta goizean auto ilara handiak gertatu ziren, batez ere Miraflores inguruan izan zen luizi baten ondorioz erreil bat moztu behar izan zutelako atzo Bilbon.

Arabian Zadorra ibaiak gainezka egin zuen Argantzunen, eta, ondorioz A-3322 errepidea moztu behar izan zuten.

Nafarroan kezka zen atzo Ebrorekin, Castejon parean

Nafarroan, Ebro ibaiak Castejon parean, hori zen atzo arratsaldean kezka nagusia. Nafarroa osoko ibaien ur emaria zela eta, goizeko zortzietan 5,28 metroko altuera zuen ibaiak gune honetan; orduantxe 1.432 m3 ur zekarren segundoko. Bi ordu geroago ordea 5,39 metroko altuera zuen urak toki berean, eta 1.503 m3 zen ibaiaren emaria. 5,5 metroko altuerarekin alerta abisua ematen ohi dio Ebroko Ur Konfederazioak Babesgo Zibilari.

Atzo arratsaldean oso arretatsu jarraitzen ari ziren azken berriak Erribera osoan. Nahiz eta euri jakas gutxitzeko joera hartzen ari ziren, oraindik emari handienak Castejondik pasatzekoak ziren.

Urak errepideetan ere kalte ugari eragin zituen, eta Iruñeko saihesbidea moztuta egon zen goiz osoan zehar, Volkswagen parean, A-15etik Leizarako sarrerara bezala. Atarrabia eta Uharte arteko errepidean ez zegoen ibiltzerik, eta Aldudeko bidea ere moztuta zegoen, luizengatik.